

# Septentrioz Septentrio

## Aurelia Arkotxaren bi libururen irakurketa bat:

*Septentrio*, Alberdania, Irun, 2001  
eta *Septentrio*, L'Atelier du Héron,  
«Pérégrins», Bruxelles, 2006

Katixa Dolhare

Literatura irakaslea eta agregatua

Aurelia Arkotxaren *Septentrio* deitu lan eruditua hobeki ulertzeko, konpara ditzakegu Mallarmé-ren obraren norabide poetikoarekin. Hain zuzen, bi idazleek liluratzat dauzkate gizakia bultzatzen duen kosmosa eta bizitzaren jatorri metafisikoaren bilaketa: den guztiaren oinarri litekeen transzendentzia hutsa edo betea ez da giza ideia bat baizik, hitz-eraikuntza gezurti bat baizik. Bainan, errealitatea ulertzeko mintzamina alfer izanen zaigula ohartu beharrean, beste tresnarik ez dugula onartzekoa dugu. Horregatik, hitzetan baizik existitzen ez den Ipar ideala deskubritzea Mentura kosmikoarekiko Joko ironiko gorena dela dirakuste bi poetek. Aurelia Arkotxak bereziki palimpsestoa, parodia eta pastichea baliatzen ditu, bere bidaia existenzialak literarioki eta fisikoki lehengo deskubritzaileen urratsei jarraitzen diela. Septentriotik nehoiz hurbilduko ez dela jakinez, beti jadanik errana izan dena errepikatzeko arriskuan edota isiltzeko zorian, halere, poeta etsiezina Iparra islatzen saiatzen da, etengabe, *Septentrioz Septentrio*.

To understand better Aurelia Arkotxa's erudite books called *Septentrio*, we could compare them to the poetic orientation of Mallarmé's work. Indeed, both of the writers consider the human search for the metaphysical origine of the cosmos and of the being as an illusion: the transcendence, full or empty, which would be the foundation of all that is, is only a human idea, only a verbal and deceitful construction. But, even if we are bound to realize that language will be vain for us to understand reality, we have to accept that we do not dispose of any other instrument. That is why the two poets show that discovering the ideal North, which does not exist but in words, is the supreme ironic Game with the cosmic Chance. In particular, Aurelia Arkotxa uses palimpsest, parody and pastiche, her existential travel following the steps of past discoverers, physically and in literary terms. Knowing that she will never see the "Septentrio", running the risk of repeating what has always already been said, or at the point of silence, nevertheless, without despair, the poet tries to represent the North, uninterruptedly, from *Septentrio* to *Septentrio*.

## 1. Sarrera

Aurelia Arkotxaren lehen *Septentrio*-n idatzi duen aitzinsolasean, Kenneth White-k honela aipatzen du idazlearen lehia:

Geroxeago, egin gogo zuen, abiatua ere zuen, liburu batez hasi zitzaidan. Hartan bermatuko zen bere erudizio guzia beste mundu batera eramarik, bere barne-izaeraren oldarraren osoki adieraztea.

[...]

Horra nolako egitasmoa aipatu zidan.

Orain eskuetan daukazuen liburua da (11.-12. or.)

2001eko *Septentrio* idaztean, A. Arkotxak ez zukeen pentsatzen berrantolatuko zuela geroago: obra bukatu bat egin zuela pentsatzen zukeen. Baina 2006ko liburua idatzi behar zuela sentitzean, ohartu zen ez dela obra bukatu, bukatu gabe gelditzen direla beti, ez dietela galdera existentzialei behin betiko erantzun fermurik proposatzen ahal. Beraz, erran daiteke lehen liburua ez daitekeela osoa izaten ahal. Osotasun eskas horren froga da bigarren bertsio bat atera izana. A. Arkotxak ez ote zuen dagoeneko dena errana? Bere jakin-gosearen bilaketaren azken bururapena ez ote zuen adierazi? Alabaina, bigarren *Septentrio* idazlearen poetika orokorrean osoki kokatzen da, ber denboran bere toki berezia dauka haren baitan, eta haren argitaratzeak idazlearen lan literarioaren unibertsaltasuna indartzen du. Hori nahi nuke erakusterat eman bi liburuen irakurketa bat proposatuz.

«Eruditua», hori da segur lehen *Septentrio*-ren irakurleari gogorat heldu zaion kalifikatzaile bat: hain zuzen, obra honek nabigazio zabal bat proposatzen digu liburu liburu, palimpsestoz, parodiaz eta pastichez, helburu aitortu honekin: delako osotasun bat poetikoki lortzea —«erudizio guzi» batena eta literaturaz eta jakin-gosez hazten den «barne-izaera oldartsu» batena— azken buru-buztan «hutsera» heltzeko. Azpierreferentzia bat nabari zaigu orduan: Mallarmé-ren lanarena, horrek itsas bidaia bat bezala asmatzen zuena Hartz Nagusia deitu izar-multzo septentriolarari buruz, eta «Liburuaren» ametsaren aurka behatopatu zena. Obra Handi horrek gizadiaren galdera guztien eta unibertsoaren izaeraren arrazoiaren erantzunak bere hitz-sarean (*textus*) idealki edukiko zituen, baina halabeharrez «hondoratu» zen eta hura ere «hutsean» galdu zen bururatua izan aitzin, Septentrioren existentzia edo existentzia eza errealaz kontu eman gabe. Interesgarria iruditzen zait, beraz, zenbait konparaketa hatz botatzea Mallarmé eta A. Arkotxaren desmartxei buruz, bi *Septentrio*-en berezitasuna erakutsiz «Maisu» handiaren obraren arabera —Valery-k Mallarmé-ri ematen zion izengoitia balia baneza—.

De ludo

Hastapenean, Mallarmé-ren produkzioa desio fantasmatico batek eragiten zuen: dramatikoki helduezina den «Ideal», Absolutu, «Ortzi» batekin osoki bateratzea:

Je suis hanté. L'Azur! l'Azur! l'Azur! l'Azur! / Menpekotua naiz. Ortzia! ortzia! ortzia! ortzia! («L'Azur», *Poésies*, Stéphane Mallarmé, NRF, Poésie/Gallimard, 1992, 21. or.)

Obsesio hori A. Arkotxaren liburuan aurkitzen da, *bertze nunbait* delakoaren berritasunaren ametsaren bidez:

Là-bas  
Au bout de l'horizon  
Ternua  
Terre-Neuve  
New  
Found  
Land  
Rivages de l'ailleurs

Han  
Zeru mugaren buruan  
Ternua  
Terre-Neuve  
New  
Found  
Land

Bertze nunbaiteko itsasertzeak (*Septentrio*, 2006, lehen testua)

Baina poeta frantsesa neoplatonismo etsigarri horretatik laster ateratzen da. Bere misioak ez du gehiago izan behar edozein «Ideia» platonikoren bilaketa alferra, zeinetik Gizakia tragikoki bereizia izan baitzitekeen. Hastapenean bertikala, zeruari buruz itzulia, Mallarmé-ren bilaketa horizontal bihurtzen da, itsasoari lotua:

La chair est triste, hélas! et j'ai lu tous les livres.  
Fuir! là-bas fuir! Je sens que des oiseaux sont ivres  
D'être parmi l'écume inconnue et les cieux!  
[...]  
Je partirai! Steamer balançant ta mâture  
Lève l'ancre pour une exotique nature!  
Un Ennui, désolé par les cruels espoirs,  
Croit encore à l'adieu suprême des mouchoirs!  
Et, peut-être, les mâts, invitant les orages  
Sont-ils de ceux qu'un vent penche sur les naufrages  
Perdus, sans mâts, sans mâts, ni fertiles îlots...  
Mais, ô mon cœur, entends le chant des matelots!

Haragia triste da, ondikotz! eta irakurtuak ditut liburu guziak.  
Ihes egin! han ihes egin! Senditzen dut xoriak mozkortzen dituela  
Hagun ezezagunean eta zeruetan izaiteak!

[...]  
Joanen naiz! Steamer haga kulunkatzaile  
Aingura bil izadi exotiko bati buruz!  
Nazka batek, esperantza ankerrek hondaturik,  
Oraino sinesten du mokanesen azken adioan!  
Eta, beharbada, hagak, ekaitzen komitatzaille  
Haizeak hondoratzeari buruz konkorrarazten dituztenetarik dira  
Galduak, hagarik gabe, hagarik gabe, ugartetto emankorrik gabe...

Bainan, oi nere bihotza, entzun mariñelen kantua! («Brise Marine», *Poésies*,  
*op. cit.*, 22. or.)

Mallarmé-rentzat, *bertze nunbaitak* ez du azken buru-buztan deus transzendentetik, gure asmamenaren ekoizpen bat baizik ez da, oinarri bakarra daukan sineste bat: gizakiak duen «Ideiak» asmatzeko ahala (zentzu platonikoan hartu behar ez den hitza da hau), giza Espiritutik kanpo errealtaterik ez duten birtualitateak direnak; zuzen errateko, *bertze nunbaita* «ez zen existitu» / «n'exista pas» («Prose (pour des Esseintes)», *Poésies, op. cit.*, 45. or.) eta ez da existituko, gai pentsakorra den gizakiarengandik sortu kontzepzio mental soila baizik ez baita.

oui, je le sais, nous ne sommes que de vaines formes de la matière, mais bien sublimes pour avoir inventé Dieu et notre âme. [...] je veux me donner ce spectacle de la matière, ayant conscience d'elle, et, cependant, s'élançant forcenément dans le Rêve qu'elle sait n'être pas, [...] devant le Rien qui est la vérité. / bai, badakit, gaiaren itxura ezdeusak baizik ez gira, bainan aski sublimoak Jainkoa eta gure arimaren asmatu ahal izaiteko. [...] nahi dut nere buruari ikusgarri hau eman: gaia, bere buruaz konziente, eta, halere, jakinez Ametsa ez dela, huni buruz doana oldarra hartuz eta errabiaturik, [...] egia den Ezdeustasunaren aintzinean. (1866ko apirila, *Correspondance*, Stéphane Mallarmé, Gallimard, Folio, 297.-298. or.)

Heldu nahiak diren marinela benturosen ametsetako «ugartettoak» ez dira «emankorrek» (arrantza beti alfer dute itsasgizonek: Kenneth White-k deitzen ditu «those who fish in emptiness», *Septentrio*, 2001, 20. or.); Espiritutik sortu lilurak baizik ez dira, eta buru-argitasun horren gabeziak galtzera eta hondoratzerara baizik ez du eramaten. Poetaren misioa da, orduan, irakurketa-prozesuaren dinamikaren bidez, gizonak giza Espirituaren esentziaren berezitasunaz kontziente bilakaraztea, berezitasun hori baita ezin lortuzko Absolutu baten Ideiaren asmatzearen ahala —Absolutu hori errealki Ezdeustasuna, «Fikzio» bat baizik ez delarik, hitz-antolaketa datzan asmatutako kreazio bat (hain zuzen, Mallarmé-k maiz hurbiltzen ditu bi aditz: *finger*, fikzio bihurtu dena, eta *poïen*, poesia bilakatu dena)—, gizonak mundua eta bere burua pentsatu ahal ditzan. Beraz, Poetak erakusterat eman behar du Gizakia dela pentsatzen eta —beti alferrik— desiratzen duen aberea, bera izaten ahalko ez zelarik, edo bestela izaten ahalko zelarik; eta Poetak hori lotu behar du Unibertso osoaren ezaugarri kontingentearekin, hura ere izan ez baitzitekeen, edo bestela izan baitzitekeen; Poemak izan behar du giza Espirituaren mentura espiritualaren oihartzun «ospetsua» («glorieux») beti «gezurra» («mensonge») egonen denari buruz («mentura» etimologikoki ulertu behar da: zoriak bultzatu gertakaria), berdin kontingentea den Unibertsoan (*Œuvres complètes*, Stéphane Mallarmé, Bibliothèque de la Pléiade, 1945, 647. or.). Hori du erraten *Poésies* bildumaren lehen olerkiak:

Nous naviguons, ô mes divers  
Amis, moi déjà sur la poupe  
Vous l'avant fastueux qui coupe  
Le flot de foudres et d'hivers;  
Une ivresse belle m'engage  
Sans craindre même son tangage  
De porter debout ce salut  
Solitude, récif, étoile  
A n'importe ce qui valut  
Le blanc souci de notre toile.

Itsasoan gabilitza, oi nere  
 Adiskide anitzak, ni dagoeneko popan  
 Zuek aintzin ospetsua ura  
 Idurtzuriz eta neguz mozten duena;  
 Mozkortasun eder batek eragiten nau  
 Haren kulunkaz beldurrik gabe  
 Xutik ekartzea salbamen hori  
 Bakartasun, harkaitz, izar  
 Edonori baliatu zitzaion  
 Gure oihalaren kezka xuria. (*op. cit.*, 3. or.)

Gizakia menturazko bidaia benturos batean ontziratua da: beraren eta unibertsoaren existentziaren zentzua, izaeraren arrazoia ezagutzeko desioak eragiten du, ez daiteke bestela, baina ez zaio emana haraindiko baten portu salbagarrian lehorreratzea, hau giza gogotik kanpo ez baita existitzen (gizakia berez «bakartia» da —«lonely», idazten du Kenneth White-k, *Septentrio*, 20. or.—, ez da transzendentzia urrikgarririk); gure kondizioaren «harkaitza» jotzea, ondotik gure hondoratzea, halaberharrezkoak dira: denak hilen gara ihardespentik erdietsi gabe betiko galderari: zergatik zerbait ote da eta ez ezer ez, eta zergatik hala eta ez bestela? Mallarmé-ren arabera, «Salbamera» ez da beraz beste nonbaitetik etorriko, beste nonbait Ezdeustasuna baizik ez baita: Espiritua, bere burua islatzeko gaitasuna eta bere kontingentzia Poeman begiratzuz da bere berezitasunaz ohartuko eta etsipenetik salbatuko. Bestela erranez, Poetak beharko du mundua agintzen duen zoria menderatu eta erakusterat eman: bere «bakartasun» metafisikoaz oharturik, eta «harkaitzak» eta hondoratzea saihesteko, saiatu behar du Unibertsoaren menturazko antolaketa hizkuntzaren aierutan berreraikitzen, antolaketa horren sinboloa delarik Hartz Handi deitu izar-multzo septentrionaleko «izarren» (*signa*) itxura arbitrarioa. Hor datza zinezko parioa, erronka, Poetak asmatzen duen «dado botatzea»: ez zernahi gisaz existitzen ez den argizagi absolutu baten bilaketan, baina horren posibilitatearen baldintzaren espresioan giza Espirituaren baitan, Unibertsoaren menturan holako Espiritu baten existentziaren posibilitatearen baldintzarekin lotuz. Bide hori («Bakartasun, harkaitz, izar») aipatua da ere Vasco de Gamari egin omenaldian («Hommage»):

Nuit, désespoir et pierrerie. / Gau, etsipen eta harribizi. (*Poésies, op. cit.*, 65. or.)

Poetak dadoak birtuarki bota behar ditu testuaren sare-begietan Zori kosmikoa harrapatzen saiatzeko, eta, hitzetan fikzioz berkeztean, «hondoratze ehorzlea» («sépulcral naufrage») menderatzeko («A la nue accablante», *Poésies, op. cit.*, 71. or.), hori delarik haraindiko salbazio segurik gabeko heriotza. Bestela errateko, poema guztiek Unibertsoaren kontingentziaren «lekuko» («témoin») izan behar dute (*Poésies, op. cit.*, 56. or.), «Beraren alegoria den soneto» enblematikoa bezala («Sonnet allégorique de lui-même», *Poésies, op. cit.*, 59. or.): «zazpikote» («septuor») izartsua poetikoki ezeztatua da («aboli») giza Espirituaren birtualitate baten seinale soil gisa; testuak, bere buruari itzulia eta hutsean murgiltzen denak, Hartz Handiko ipar izar-multzoa irudi mentala baizik ez dela, «Septentrio» giza hizkuntzatik kanpo existitzen ez dela frogatzen du. Ezen, *a priori* irudi baldin badu ere Poesia ez dela Unibertsoaren menturazko jokoa islatzeko gai («un coup de dés jamais n'abolira le hasard» / «dado botatze batek ez du nehoiz zortea ezez-

tatuko»), ahal bat gelditzen da beti, zernahigatik ere, hain zuzen giza Espirituaren mentura eta, beraz literatura, kosmosaren menturazko antolaketaen barne baitira: ahal hori da hitzetan lotzea, zorionez, Gizakiaren existentziaren posibilitate-baldintza eta argizagien existentziaren posibilitate baldintza:

à l'altitude

PEUT-ETRE

aussi loin qu'un endroit fusionne avec au-delà [...]

vers

ce doit être

le Septentrion aussi Nord

UNE CONSTELLATION

gora

BEHARBADA

haraindiarekin bateratzen den toki bat bezain urrun [...]

dirudienez

Septentrioia Iparra ere

IZARMULTXO BATI

buruz

(«Un coup de dés jamais n'abolira le hasard», *Igitur, Divagations, Un coup de dés*, Stéphane Mallarmé, NRF, Poésie/Gallimard, 2003, 440.-441. or.)

Dado Botatzearen izar-multzoa, Poesiaren helburua islatzen duena, «Edozein Pentsaketaren» («Toute Pensée») «analogon izartsua», «zerutsua» da («analogon stellaire», «sidéral», *Les Poésies de Mallarmé*, Eric Benoit, Ellipses, «Du Mot à l'œuvre», 1998, 49. or.), «Edozein Pentsaketak dadoa botatzen baitu» («Toute Pensée émet un coup de dés»); bestela errateko, Kosmosak bezala, «Edozein Pentsaketak» menturazko joko batean parte hartzen du, Unibertsoa eta Gizakiaren Zentzua dela jokatua («Zentzua» bi adierazpenekin ulertu behar da hemen: «erran-nahia» eta «noranzkoa»).

Itsas bidaia eta Septentrio bilaketa joko gisa aurkeztuak dira A. Arkotxaren liburuetan ere. Mallarmé-k bezala, A. Arkotxak erakusterat ematen du Gizakiaren izaera metafisikoa, gutti edo aski argiki lilura-sortzaile: ezen *Septentrio*-k aurkeztu digu delako bilduma ludiko bat, abenturaren Menturari lotu diren gizon batzuen espedizio-kontaketa desberdinena, Absolutu gosea, *Terra incognita* deskubritzeko desioaren gorpuztea zutela xede. Bainan A. Arkotxaren obran, testu horiek beren burua modu ironiko batean dute eraikuntza alfer gisa islatzen. «Marko Poloren ametsa»rekin, bilduma haste-hastetik fikzio, asmakizun gisa agertzen da, bata bestearen barnean kateatuak diren ametsen bidez, «mise en abyme» moduan: Marko Polok «Zuhaitz Bakarraz» amets egiten du, honek paradisuko «baratzeaz», honek bere errege Aloadinez, honek Kogatraz, honek, iratzaririk, Marko Poloz, eta horrela biak elkartzen dira, Marko Polok begiak irekitzen dituen mementoan, Genevako presondegian. *Devisement du Monde* liburuaren eraikuntza parodiko horrek indartzen du hipotestuaren ganora-gabezia (batzuetan hala izan daitekeena, maiz egiaztatua dena), azpimarratuz ameslari bakoitzak ez duela ezagutzen bere ametsetako pertsonaien ametsa, hori gauza ezinezkoa baita.

Eta hona non nehoiz Markori kondatuko ez zion amets hau berari zitzaion jin. (*Septentrio*, 27. or.)

Soinu, irri, iturriren xurxura eta itzalaren goxotasunari esker, baratzea lokartu da eta amets bat egin du, nehoiz zuhaitz bakarrari kondatu ez diona. (27. or.)

Arratsalde batez, baratze miresgarriko sagardian lo kuluxka baten egiten ari zela amets bat egin zuen. Nehoiz baratzeari kondatu ez ziona. (29. or.)

A. Arkotxa, *Livre des Merveilles* liburua ipuin gisa berridazten jostatzen da, *Mila eta Bat Gauak* gogoraraziz, ekialdeko legenda, mito, lilura, gezur giro batekin. «Marko Poloren ametsa» kontakizun metatestualtzat emana dela nabari da, «Sonnet allégorique de lui-même» bezala, eta honetaz ohartzera gonbidatuak gara: idaztea joko soila da; gizakia, bere kondizioaz preso, Marko Polo gatibatuak itxuraten duena, bera liluratzen da, gutti edo aski argiki, mundua den bezala zintzoki deskribatu nahian. Kondairaren hastapena ironia metatestualez betea da, beraz:

Nik, Marlo Polo, Venezian 1254an sortuak, Niccolò Poloren seme eta Maffeo Poloren ilobak, orain Kristoren Haragitzearen ondotik den 1298. urtean Genovako presondegi honetan preso naizenak, mundua zein den eder, zein den handi kondatuko dizuet. Uste duzuen baino aise zabalagoa baita eta sekulan pentsa ez dezakezuen baino miresgarriagoa. Hala Armenia Ttipia eta Armenia Handia, Persia, Tartaria, India, Katai eta Zipangoko uhartea. Eta bertze hainbat leku miresgarri, girstino baten ahoak nehoiz ahozkatu ez dituenak. (25. or.)

A. Arkotxak irakurtzerat ematen digu munduko errealitatearen islatzea, *a priori* jatorrizkoa, zintzoa eta leiala, Marko Polorena bezala, Mallarmé-k deitzen duen «fikziorat», «literatura zehaztugaberat» («vague littérature») lerratzen dela, antolaketa literario bihurtzen baita (*Œuvres complètes*, Stéphane Mallarmé, *op. cit.*, 73. or.) —«pure myth», du idazten Kenneth White-k (*Septentrio*, 20. or.), hitz-antolaketa birtual eta alferra, bidaiariaren Espirituak bere harriduraren objektua lilura bilakarazten duena, «mirak» hitza adierazten duen bezala, bi erran-nahiekin ulertzen badugu (*Septentrio*, 25. or.)— Beraz hemen atzematen dugu Mallarmé-ren «Joko» nozioa: literaturak eginbehar metalinguistikoa du, gizakiaren funtsezko ahal honen kontu eman behar baitu: hitzen bidez Unibertso sentigarriaren esentziaz —Zentzuaz— liluratzeko ahala. A. Arkotxak argiki jokoa du uzten bere testu parodiko eta hipotestuaren artean, elkarren arteko tartea hobeki sentiarazteko: pastichetik parodiara pasatzen da, narratzaile desberdinak asmatuz, Marko Polo eta Rustichelloren orde: hastapenean, Marko Polok lehen pertsona erabiltzen du («Nik, Marko Polo [...]», 25. or.), ondotik narratzaile berri bat mintzo da hirugarren pertsona erabiliz, jatorrizko testuan Rustichello-k egiten duen bezala bere buruaz mintzo delarik («Horrela zen Rustichello Pisakoa hasi Marko Polok bizi izan zituen bidaia benturosen izkiriartzen», 25.-26. or.), azken narratzaile orojakile eta A. Arkotxak asmatu bati lekua utzi aitzin, atal bakoitzaren bukaeran («Gero, isildu ziren bazterrak eta loeria Markoz jabetu. Orduan zuen amets bat egin nehoiz Rustichelloari aipatu ez ziona», 26. or.); baina atal bakoitzaren barnean, ahots narratiboa anizten da: Markori toka mintzo zaio («Zortzi urte iraunen duen basamortua iragan beharko duk», 26. or.), Aloadini zuka («Aloadin, ene printze eta jabea, bortz eguneko zabaltasuna duen probintzia bat iraganik, Karaanera helduko zara [...]», 29. or.), ondotik Kogatra pertsonaia femeninoa bera mintzo da («Duela sei urte, Kubilai Khan Handiak deitu ninduen [...]», 31. or.), bere erranetan Kubilai

Khanen solasa diskurtso zuzenean tartekatuz, Marko Polo mintzatzerat utzi aitzin lehen pertsonan, berarekilako lehen elkarretaratzea konta dezan, Kogatrak berak orduantxe kontatu duelarik modu kasik berdinean, abantzu hitzez hitz. Nabari da *Le Devisement du Monde* honela parodiatuz, A. Arkotxa anitz jostatzen dela, idazteko mekanismoak desmuntatuz, adibidez tresneria narratiiboak (ahots narratiiboak, istorioaren ganoragabeko iragaitea, ametsa eta delako «errealitatearen» nahasketarengatik) eta ipuinen ohiko gaiak (bidaia, bat-bateko maitemintzea, miresgarritasuna). Bere palimpsestoa liburu egin idazkera ekoizpen bat bezala aurkeztuz («nehoiz ahoskatua», 25. or.), jatorrizko testua errespetatzen ez duena, eta Marko Polo gizon erreala fikziozko pertsonaia bilakaraziz, A. Arkotxak joko liluragarritzat erakusterat ematen digu gizakiaren saiakera naturala errealitatea hizkuntzaren bidez islatzeko: testuak, beti dado gisa jaurtikia errealitatearen zentzua sorrarazteko esperantza liluragarrian, errealitate hori bera beti arbitrarioki Fikzioaren menpeko ezarriko du.

«Marko Poloren ametsa»ren ondotik, doinua emana da: ondoko bilaketa-kontakizuna, «Ihoan Mandabillaren bidaia benturosak»en berridazketa, itsas bidaia luze baten lekukotasun gutti edo aski asmatu gisa agertzen da, jatorrizkoak ematen dituen istorioak mitologiari direlarik lotuagoak. «Benturosak» izenondo horrek, bildumaren lehen orrian agertu zenak, (25. or.), Absolutu gisa itsasoz itsaso bilatua den *Terra incognita* baten, bai eta hau absolutuki islatuko lukeen *Textus incognitus* baten mentura azpimarratzen du; ezen ipuinean, fikzioan hondoratzeko arriskua etengabea da. Eta hori du adierazi nahi azken poemak, azken hitzak arbuizatzen dituela hitzen bidez errealitatea konprenitzeko saiakerak (kon-prenitu: lehen zentzuan): hitzen jatorri etimologikoa, beti gezurtia izateko eta beste hitz-joko batzuei baizik helarazteko arriskuan, ez da nehoiz errealitatearen esentziarekin bateratzen ahalko, eta hau beti «hutsa» geldituko zaigu, hitzen bidez erdietsi ezina, Sevillako Isidororen teorioren aurka:

MARE MAGNUM FINE  
(Sevillako Isidoro, Etymologiae, 1472)  
ontzia  
emeki-emeki  
desagertuz doa  
itsasoa  
bakar  
  
bazterra  
huts (185. or.)

Hola jostatzen da A. Arkotxa Sevillako Isidororen itsukeriarekin, hark sinesten baitzuen hizkuntza («Hitza») baitan, zentzu eta Jainkoaren Bestetasun absolutuari buruzko irekiduraren ekarle gisa, edozein mintzaira, Babel-etik landa, Bera-rat, Gi-zadiaren mugatasunerat ekarrarazten duen giza itun bat baizik ez delarik. Gainera, Sevillako Isidororen 1472ko maparen erreprodukzioa ironiaz betea da: A. Arkotxak erakutsi nahi digu marrazki hori bera delako testu bat dela, erran-nahi teologiko bat daramana («oriens», paradisuko norabidea, eguzkia nehoiz sartzen ez denarena, gainean ezarria da); horrela, mapa hori hipertestu bibliko bat bezala agerrazaziz eta hipotestu ludiko gisa baliatuz, A. Arkotxak azken finean beraren lanari buruz



itzultzen dio ironia: beraren paradisuaren keta, Septentrio keta, ez ote da beti hitz-jokoan beti eta beti preso egoteko arriskuan?

### Jus litteraturae

Mallarmé-rentzat, Poesia da giza Espirituaren bidaia benturosaren lekukoa: Gizakia berez izar-multzo septentrional baten bila ari den izaera metafisikoa da, errealki bere kontingentzia baizik itxuratzen ahal ez duena; ezen «zazpikotea» ez da Espiritua bere burua islatzen ari den «analogon izartsua» baizik, Menturak sortu «gai pentsakor» baten kreazioa baizik. Definizio hori oinarri, Mallarmé-k «Liburu» oso bat asmatzen du, sakonki bereganatuak lituzkeenak, ahale Mintura menderatuz, Poema guziak, liburu guziak, erran nahi baita giza kondizioaren zentzuaz kontu emateko manera guztiak<sup>1</sup>. Horrela, Poesiaren «nabea» («nef») ontziratuz, itsas «Salbamena» eta «Salbamen» metafisikoa segurtatuak litezke: zentzugabezia, Menturak manatzen duen Unibertsoaren kaos menderaezinean hondoratzeko arriskua betikotz saihestua liteke unibertsoaren zortea ordenatzaile litekeen «Liburuan», bere burua miresten lukeen Espirituarentzat. Baina hori berez lan burutuezina eta gezurtia da. Poetak Mintura menperatu nahi lukeela dio, benetan kontrolpean daukan sistema baten makinerian finkatuz, baina Menturaren Ideia mentala baizik ez du eskupean; Gizakiak bere ideiak baizik ez ditu ordenatzen ahal, eta ez haien erreferenteak: gauzeekin berekin aritzea ez zaio emana, are gutiago agintzen dituen Menturekin, Gizakia beraren existencia honen menpeko dela ere. Poetak errealitate guzia «Libururat» helaraztea zuen amets:

Une proposition qui émane de moi [...] veut que tout, au monde, existe pour aboutir à un livre. / Nereganikako proposamen batek [...] nahi du dena, munduan, existitzen dela liburu baterat heltzeko. (*Œuvre complètes, op. cit.*, 378. or.)

Baina, «Libururat» helaraztean, idazleak ez du errealitatea deskreatzen ahal baizik, ezeztatuz («abolir»), goibelduz, desitxuratuz, hari arkitektura fikziozko, gezurti, artifizialki sistematiko bat emanez, giza ordenak bakarrik agindua, horrela geure burua egiazko jakitateaz zapuztuz. Munduko beste errealitateak bezala, giza lzipirituan baizik «lorea» («la fleur») ezinbestez «edozein azautik kanpo» («hors de tout bouquet») existitzen den bezala, «nozio soil» gisa («notion pure», *Poésies, op. cit.*, 259. or.), hitz-jokoetan bakarrik, eta are gehiago guztien bultzatzailea dirudielako, Mintura ez da Gizakiaren eskupeko, hitzen birtualitatean baizik dagoelako. Ondorio logiko bat darama horrek: Poeta ez da Mintura beraren, hots haren ideia mentalaren erreferentearen existenziaz edo existencia ezaz segur izaten ahal. Hain zuzen, «Liburu» izan ezina Menturaren baieztapena eta ezeztapena da ber denboran («il y a et il n'y a pas de hasard» / «mentura bada eta ez da», *Œuvres complètes, op. cit.*, 442. or.), bi jarrera horiek gauza bera erran nahi dutelarik: Menturaren Ideia baizik ez dugu lortzen ahal, hizkuntzatik harat ez baikintezke joan gure «bisioek» («visions») errepresentatzen duten izaeraren edo izaera ezaren arrazoia osoki ulertzeko («bisio» horiek zuzenean «bistan» ager dakizkigun nahi genukeelarik —«vues»—, Mallarmé-k dioen bezala «Prose (pour des Esseintes)»-en, *Poésies, op. cit.*, 45. or.), «bisio» horiek «zerbait» edo «ezer» edo ahoskaezina den beste zerbait izan daitezen. Gizakiarentzat existitzen den

1. Xede hori hobeki ulertzeko, ikus Eric Benoit-en lana, *Mallarmé et le Mystère du «Livre»*, Honoré Champion, «Romantisme et modernités», 1998.

errealitate bakarra da beraz «Jokoaren» («Jeu») «tokia» («lieu»), Poesia; gure ideien erreferente posibleak erdiesteko dugun ahalmen eskasaren konzientziari buruz norabidetzen gaituen «toki» horretatik harat, hondoratzea da, «galtzea» («perdition»):

RIEN

[...]

N'AURA EU LIEU

[...]

QUE LE LIEU

inférieur clapotis quelconque comme pour disperser l'acte vide  
abruptement qui sinon

par son mensonge

eût fondé

la perdition

dans ces parages

du vague

en quoi toute réalité se dissout»

DEUS

[...]

EZ DA TOKIAN IZANGO

[...]

TOKIA BAIZIK

azpiko plisti-plasta arrunta ekintza hutsa barreiatzeko bezala

larriki bertzela

bere gezurraz

oinarrituko zukeena

galtzea

inguru horietan

edozein errealitate urtzen den

zehaztugabeziarena

(«Un coup de dés jamais n'abolira le hasard», *Igitur, Divagations, Un coup de dés, op. cit.*, 438-439. or.)

Egiaz erraten ahal den gauza bakarra da beraz «zentzua» «zehaztugabea» geratzen zaigula, eta menturaz zortea jokatzuz erdiesten ahalko dugula bakarrik.

Hain zuzen, A. Arkotxak bere zortea jokatzuz du: pertsonalki eta konkretuki badoa lehengo itsasgizon euskaldunen hatzei jarraikiz, beharbada deskubritzeko, halabeharrik hala nahi badu, haiek amesten zuten ipar diamante hura (oroitaraz dezagun A. Arkotxak Sevillako Isidorori mailegatzen dion kartografian, Septentrioa ezker aire dela, Mundu Berrirantz).

Diamanteak ezkerraldeetik ibili behar dira sortzez duten indarra septentriotik heldu baitzaie, septentrio munduaren ezkerrean baita eta orientera itzultzen dutelarik jendeek aurpegia, septentrio ezkerrean baitute, Isidoro Sevillakoak zion bezala. (*Septentrio*, 75. or.)

Bainan bildumaren ondarrean, egiaztapen bat saihestezina agertzen da: A. Arkotxak deskubritzuz duena, azken finean lortzen dituen gauza bakarrak dira, Septentrioaren ordeztu eta beronen tokian, Lurraren mugimendua eragiten duen «bederatzigarren zeruaren» partez (*Septentrio*, 80. or.), «Ternuaren» ordeztu,

horietaz hitz egiten duten testu zaharrak; eta horrelaxe iluntzen dute helburua, horretatik hatza, itzala, «artebisio» bat baizik erakusterat eman ez bakarrik (Philippe Jaccottet-en «entrevision» hitz gustagarria erabiltzen dugu hemen). Literatura ez da erotzen den iparorratza baizik, egiazko diamante septentrionalaren kontaktuan norabidea galtzen duena:

Jakitiko ea diamantea egiazkoa den, hartzen da orratz-harria, hau baita orratza bereganatzen duen marinelen harria. Diamantea orratz-harriaren gainean aski zaio sartzea eta orratzaren presentatzea. Diamantea egiazkoa eta birtuteduna baldin bada, orratz-harriak ez du orratza bereganatuko. (*Septentrio*, 75. or.)

*Terra incognita* delakoa ez da ez lurretik ez itsasotik hurbiltzen ahal:

Bizidunak ez dira Lurreko Parabisura hurbiltzen ahal ere. Ez leihorretik, arroka biluzi gaitzengatik, deserto ikaragarriengatik, leku ilunengatik eta leku horietan aurkitzen diren munstroengatik. Eta uretik ere ez, ez baita ibaiez baliatzen ahal hara joateko, urek jaistean egiten duten jauzian izigarriko indarra hartzen baitute alimaleko uhainak sortuz eta nehor ez baitaiteke uraren kontra joan, luitetan, Lurreko Parabisua den aldera. Gainera, urek egiten duten burrunba ezin sinetsizkoa denez, ontzian direnek ez lezakete elkar adi. Anitz dira entseatu direnak eta nehor ez du erreusitu, anitz dira luitetan ibiliz leher eginik hil direnak, bertze anitz herbail gelditu dira, itsuturik edo sorgoturik, ontzitik erori dira ere anitz eta betiko galdu. (81.-82. or.)

Eta espedizio horiek hondoratzen baldin badira, bilaketa-literatura hutsak baizik ez direlako da eta mundua, «itsasoa», errealitatea, betiko «hermetikoak» («hermétiques», *Septentrio*, 2006) geratuko zaizkielako.

Beren jakitate-boterearen ahuleziaz kontziente, Mallarmé-k eta A. Arkotxak oinarrizko galdera pausatzen dute, «behar ote denez idatzi» («à savoir s'il y a lieu d'écrire», *Œuvres complètes*, Stéphane Mallarmé, *op. cit.*, 645. or.). Poetak, *animal loquens*, dadoak botatzen jarraitu behar ote du, testu-sareak hutsean jaurtikiz, gizakiak berezkoa duen logos-a harainditzen duenaren erdiesteko esperantza beharbada zentzugabekoaren eraginez? Bi jokabide dira orduan hautuan jakinminak agintzen dituen poeta horientzat: alde batetik etengabeko errepikapena, etsigarria edo paradoxikoki bozkariagarria, Derridak «hesi metafisikoa» deitzen duenaren baitan («clôture métaphysique»), erran nahi baita hizkuntzaren mugetan; bestetik isiltasuna. Idatzi (hitzen birtualitatean bortxaz preso egonez, adibidez izarmultzo gisa agertzen zaizkigun argizagi septentrionalen antolaketa funtsez ezin ulertuz) edo ez idatzi, hau da Poeta guztiendako «Joko handienaren zalantza» («doute du Jeu suprême», *Poésies*, *op. cit.*, 68. or.). Lehenik, A. Arkotxak errepikapena hautatzen du. Haren bildumak biziki ongi erakusterat ematen du literaturaren itxidura, XIII. mendetik geroz aitzinatu gabe etengabe errepikatzen ari dena. Mallarmé-ren «Liburua» baino zorrozkiago, *Septentrio* bi liburuek hau dute ezin hobeki argirat ematen: bere Zentzu-bilaketan, gizakiak ez ditu liburu-hatzak, hitz-hatzak baizik aurkitzen, hizkuntzatik haraindiago ezin joanez bere adimenaren eskutik betiko urrundua egonen zaiona azkenean lortzeko asmoz. Hain zuzen, mitoak, *a priori* literarioak ez diren artxibo-dokumentuak, zinez biziak izan diren esperientziak eta egiazko poesiak maila berean agertzen dira: edozein giza ekoizpen halabeharrez «literatura zehaztugabea» baizik ez da, bere burua islatzen duen «fikzioa» baizik. A. Arkotxaren liburuen irakurketa hau arrunt onargarria da. Lehen *Septentrio*-n, testu bakoitza ber idazkera andana baten anarteko azken

bertsio gisa agertzen da, haien jatorria absolutuki ezagutezina daukagularik, hizkuntza eta «Izaera» edo «Ez-Izaera» hitz hutsetik («Ideietik») harat, erran nahi baita ele nahasia baizik ez den dialektika antzutik harat. Gérard Genette-k bere liburu ezagutuan sailkatzen dituen «palimpsesto» mota handiak (imitaziozkoak eta bestelakariak: itzulpena, pastichea, parodia) agertzen eta nahasten dira A. Arkotxaren lanean, irakur dezagun Literaturaren erreferentea bere burua dela, eta esperientzia metafisikoa, zinez bizitua ere (adibidez *a priori* literatura-egilea ez den itsasgizon batena) «literatura zehaztugabea» baizik ez dela. Hori biziki argi da lehen *Septentrio*-ko «Iohan Mandabillaren bidaia benturosak» sailean: bi hipotestuen euskal berridazte argi bat dugu hau, joko moldean: Ihoan Mandabillaren «Tour du Monde» eta Martin Hoyarsabal-en «Biaya Venturosac»ena, hau XVI. mendearen ondarrean inprimatua eta 1677an Donibane Lohizuneko Piarres Detcheverry-k, izengoitiz Dorre-k, itzulia (edo hobeki erran, Kenneth White-k zuzentzen duen bezala bere aitzinsolasean, 10. or., «luzatua»), obra hau aitzinaroko kondairek inspiratua dutela. *Septentrio*-ko sail hori berridazte baten berridatzia da, eta hain zuzen berridazketa mugagabeen berridazketa gisa agertzen da, paratestuak beste liburu batzuekin lotura egiten baitu: lehenik Bacon-en *The Advancement of Learning* eta Descartes-en liburu bat, nondik Daniel-en Liburutik ateratako aipu bibliko bat hartua baita; eta ondotik liburutegi oso bat, liburu-zerrenda izugarri luze eta erreferentzia kartografiko andana baten bidez, Francis Bacon eta Johannes Dee-k egina, azken horren liburu sortatik ateratakoak omen, Fabri de Pereiscen-en hautuetan oinarriturik. «Sine nomine» azalpenak iragartzen duena da, beraz, jarraituko zaion testua jatorrizko testuaren hatzaren hatzaren hatza baizik ez dela, jatorrizko hura nahasia delarik ahoz transmititu ipuinetan («entzun dut», 84. or.) eta erreferentzia literarioetan (Pline aipatua da 74., 92., 94. or.; Greziako mitologia anitz aipatua da, bai eta hango filosofoak eta Biblia). «Iohan Mandabillaren bidaia benturosak» idatzia izan den testuingurua kontatzen digun XVII. mendeko paratestu bat aurretik duela, paratestu horrek A. Arkotxaren bigarren paratestu batek iragartzen eta «itzultzen» duela, ez da beraz lehen testu lortezin baten itzulpenaren itzulpenaren itzulpena baizik, bortxaz traditua beraz, lehen testu hura bizitua izan zen esperientzia baten fikziozko itzulpena delarik: *Terra incognita*-ren etengabeko bilaketarena, hau delarik menturazko abentura bat «utopia» (lehen zentzuan) bati buruz, Paradisu bati buruz (Ihoan Mandabillak aipatzen duen Bibliarena, Aloadin eta bere «Asesino»arena, edo Sevillako Isidororen mapak «Oriens»aren bidez seinalatzen duena), egiazki lilura (fikzio) bat baizik islatzen ez dena, literatura baizik ez dena («vague littérature»), «Ideia» mentala baizik ez dena, bilaketa metafisiko hutsa edo hitz «hesi» bat baizik ez dena. Nabari da, beraz, Literatura dela Jacques Derrida-k «différance» deitzen duenaren lekua, pentsaketa metafisikoaren antzinagoko jatorri nahiaez galdu batetik bereizten gaituzten hatzen espresioaren lekua dela:

La trace est en effet l'origine absolue du sens en général. Ce qui revient à dire, encore une fois, qu'il n'y a pas d'origine absolue du sens en général. La trace est la différence qui ouvre l'apparaître et la signification. / Ezen hatza da sentzu orokorraren jatorri absolutoa. Horrek erran nahi baitu, berriz ere, ez dela sentzu orokorraren jatorri absolutorik. Hatza da différence delakoa, agertaraztea eta erran nahia idekitzen dituena. (*De la Grammatologie*, Jacques Derrida, Les éditions de Minuit, «Critique», 1967, 95. or.)

Hain zuzen, *Septentrio*-ko zati batzuek Uliseoren abenturak aipatzen dituzte (adibidez Myrra-ko arriskuak, 58.-59. or.), eta gogoan dugu hemen *Odisea*-k sinbolizatzen zuena Mallarmé-rentzat: etengabeko espedizioa, jatorrizko aberri galduari buruzko itzultzea duelarik helburu eta Zentzu, bidaia berez burutugabea delarik, gizakume bakoitzak abiatzen duena antzinako belaunaldiak baino urrunago joanen delako esperantzarekin.

Ni hortik gibelera itzuli naiz eta orain beranduegi da enetzat. Baina zuk irakurle maitea, bidaia benturos hori egin nahi baldin bazenu eta ni baino urrunago joan, jakin ezazu hortik eguzki sortzera joanez itzulia egin daitekeela. (*Septentrio*, 85. or.)

Mentura hori du A. Arkotxak bereganatzen, Ihoan Mandabilla eta Martin de Hoyarsabal bere bi giden hatzei pertsonalki jarraituz, deskribatu zituzten lekuetarat joanez. Hain zuzen, haren bilduma honelaxe norabideratua da: asmamen eta fantasiatik, idazleak bere egin duen bilaketaren errealitate autobiografikorantz: lehen *Septentrio*-n, antzinako itsasgizonen kondairen ondotik, eleberri labur errealista bat dator, gero eguneroko baten zati bat eta bat-bateko poetikoak, ipar-ipar kanadiarreko inguru garaikidetik jalgiak. A. Arkotxa bere antzinekoen ondorio bererat halabeharrez heltzen da halere: Septentrioa hatzen hatzetik iragartzen ahal da bakarrik:

Iduri zuen hondartza ezin bururatua zela, bizkitartean, azken zokora heltzean, ohartzen ziren hura ez zela hondartzaren hondarra, haitz apal eta beltzen gibelean bazela bertze bat, hain luzea. Eta segur aski haren ondotik bertze bat... (118. or.)

Zerumugaren zolaren bilaketa Literaturarekin behaztopatzen da beraz («Hala dio Donibane Lohitzuneko Piarres Detcheverry Dorre, Xuketteneko nagusiak, bere itsas-liburuan», 132. or.), beraren oihartzunaren ezdeustasunean («Espaloi leun zohargian ene urratsen oihartzuna bakarrik», 128. or.).

Baina ez du horrek A. Arkotxa geldiarazten: bere irakurleak gonbidatzen ditu berak duen benetako giza abentura bereganatzeko desmarta imitatzerara, jadanik aipatu dugun Ihoan Mandabilla lehengo itsasgizonaren aholkua kontuan hartuz. «Ihoan Mandabillaren bidaia benturosak» deitu A. Arkotxaren bildumaren kapituluari idazlearen lanaz enblematiko deritzot beraz: fenomeno literarioa deseraikitzen du, errepikapen etengabe eta irudiz tautologiko<sup>2</sup> gisa agerraraziz, beti dagoeneko hipertestuak diren hipotestuekilako joko bat bezala agerraraziz, beti jadanik errana izan den azalpen eta itzulpen palimpsestoak bezala agerraraziz, lortezina den zentzu, edo hurbilgaitza den Septentrioari buruzko tentsio asintotikoa edo espiral bezala agerraraziz. Mallarmé eta A. Arkotxa egiaztapen bererat heltzen dira orduan: Poesiak ez du giza Espirituaren eta transzendentzia baten arteko bereizkuntza metafisikoa betetzen, transzendentzia hori Ezdeustasuna izanik ere, Espirituaren kontzepzio mentala baizik ez baita («notion pure»); alderantziz, Hitz poetikoa logos-a harainditzen duen osotasun «hermetikoaren» jakitateari buruz oztopo gehigarria agertzen da (Derrida-ren zentzuan): Hitz poetikoa Literatura (hizkuntza antolatua bidez espresatzen den jakin-mina) den prozesu errepikakorraren anarteko helburu gisa aurkeztua da. Hain zuzen, *Septentrio* literaturaren

---

2. «Irudiz» bakarrik: subjektibotasun berri bat «dagoeneko ikusia denaz» harrapatua den guztietan, pertzepzio berritu bat («original») ematen du hortaz, bestela errateko, jatorri («origine») berri bat, antzinako jatorri-hatzei gehituko zaiena («suppléer», dio Derrida-k).

antzezlan bat da, Mallarmé-ren asmotik hurbil dezakeguna: harentzat, «Liburuak» ez zuen bakarrik Espirituaren dramaren leku metatestuala izan behar, baina ere zinez haren leku eszenikoa (drama hori delarik, Espirituarentzat, bere burua mugapenean eta hitz-hesi etengabearen mirestea). Antzerki-ilusio bikoitz bat sumatzen baita *Septentrio*-n: Literatura, konprenitzeko (lehen zentzuan) desmartxa alferra dela salatuz, bilduma hori, Literatura horretan partaide delako bera ere, ez zen bere buruaz trufatzen ahal baizik, «Jeu suprême» gisa, eta isiltasunera, hutsera heltzen ahal baizik. Hori da lehen *Septentrio*-ko norabide (geografiko)aren erran-nahia, ekialdetik (Marko Poloren Asiatik) mendebalera (Kanadako ipar-iparrera): eguzkiaren lasterraren drama du sinbolizatzen horrek, eta bigarren erran nahi batean izaera metafisiko batean (hitzak baizik ez daitezkeen Absolutu edo Ezdeustasuna baitan) oraino sinesten duen Gizakiaren hondoratzea. Ezkerrerantz argizagia (Eguzkia, Hartz Handia edo artizarra) bilatzen duen gizona (mendebalerantz, erran nahi baita septentrionantz, A. Arkotxaren kosmogrfian, estalkian agertzen den bezala) hartaz gero eta urrunagotzen da, ustez eta hurbiltzen delarik:

Erran nion nola beti sartaldera buruz joanez, artizarra gero eta gorago uraren gainean altxatzen den: bi beso Melibarren, bortz beso Gazuraten eta oraino gorago Kanbaeteko inguruetan. (*Septentrio*, 35. or.)

Mallarmé-k jadanik erabilia zuen eguzkiaren tragediaren motiboa, antzinaroko mito horrek islatzen duelarik Gizaki bakartiaren herstura, lortezina den errealitateari begira.

Orduan, drama metafisiko hori argiki gogoan hartuz, bai eta haren errepikapen etengabea, mila bertsio eta metafora literarioren bidez huskeria segur baterat helarazten duena («abolis bibelots d'inanité sonore» / «soinu hutseko gauza ezdeustaratuak», *Poésies, op. cit.*, 59. or.), zer da gelditzen? Soilki isiltasuna, hitzetik harat den itsasoaren beraren errealitatea; azken buru-buztan, ez, ez da idatzi beharrik (hau da Mallarmé-ren galderaren bigarren ihardespena). A. Arkotxak erakusterat ematen du nola gizonak, liluratu, errealitatea bereganatzen saiatzen diren, hitzetan finkatuz, haien ustez, beren bilaketa existenziala (metaforikoki itsasoari lotua) «Septentrio»ari buruz bideratuz; baina ez du sinesten errealitatea «Liburu» batean bururatuko denik, harrapa daitekeela hizkuntzaren bidez, eta bere bilduma amiltzen du, Mundua bere mututasunari eta etengabeko ihesari uztea onartuz.

Biharamunean, Hampdengo inguruetakoa hondartza hertsietako egur botaietarik urrun, iparreko lur besora buruz joatean nintzen ohartu bezperatik foto-ateratzekoa hutsik neramala. (*Septentrio*, 134. or.)

Baina orduan, errealitateak ez badu liburu baterat bururatzekorik, ez baitugu hartaz deus berririk erraten ahal, zergatik A. Arkotxak oraino idazten ote du? Bi erantzun egoki dira galdera horrentzat. Lehena hauxe da: ikusiz errepikapen literarioa hondoratzeko etengabea dela, idazleak ez luke geihago hizkuntzak liluraz sortu zentzua (erran-nahia) defendatu nahi, baina mintzaira bat, euskara. Ezen, mintzaira da Poetari gelditzen zaiona hitzen zentzua (eta zentzu mentala) hondoratzekotan eta Literatura urperatzeko zorian direlarik, Derridak ohartarazten duen bezala:

On peut soupçonner déjà le ressassement littéraire, l'écriture du ressassement, de viser d'abord à la réaffirmation de la langue, d'une langue, alors que ce qui y est dit, le «vouloir-dire» [...], devient radicalement secondaire. [...] Le ressassement voudrait ainsi dire, ou affirmer, ou déclarer: «Je parle cette langue, et ce que j'y dis, quoi que j'y dise, est au service de ce fait, de cette expérience, de cette affirmation: «Je parle, je sers, je sauve ma langue: je sauve ma langue dans le pire désastre, quel qu'il soit» [...]» / Dagoeneko sumatzen ahal dugu errepikapen literarioaren helburua, errepikapenaren idazketarena dela mintzaira baten ber-egiaztatzea, mintzaira batena, errana, «erran nahia» [...], errotik bigarren mailakoa bihurtzen dela. [...] Errepikapenak erran nahi luke beraz, edo egiaztatu, edo adierazi: «Mintzaira honetaz mintzo naiz, eta honen bidez erraiten dudana, zeozer erran dezadan, gauza, esperientzia, egiaztatze honen zerbitzuko da: «Mintzo naiz, nere mintzaira zerbitzatzeko, salbatzen dut: nere mintzaira izan daitekeen edozoin hondamen gaitzenez salbatzen dut» [...]» («Le ressassement ou le droit à la littérature», *Écritures du ressassement, Modernités*, 15. zk., Presses Universitaires de Bordeaux, 2001, 321. or.)

«Hondamen» existenziala islatzen duen Literatura ezgauzari istorio-gabezia metafisikoari begira, mintzaira da salbatzekoa den gauza bakarra, eta bideratzen duen kultura historikoa. *Septentrio* dokumentario bat bezala irakurtzen ahal da beraz. A. Arkotxak berak azpimarratzen du «Iohan Mandabillaren bidaia benturosak»-en balio linguistiko eta historikoa:

Ikusiz XV. mendetik landa Europa osoko hizkuntza gehienetara zabaldu zela historia eta bidaia honen zernahi bertsione badela, dokumentu honen interesa hiru pundutan datza; lehenik hizkuntzan, nahiz bertsione honetan leku anitzen deskripzioa falta den, azpimarratu behar baita euskaraz den bertsione bakarra dugula hemen begien aitzinean; bigarren, aitzin-testu edo paratestuetan, bertsione honetan baitira bakarrik aurkitzen; hirugarren, gero gehitua izan zaion Belhaimen globoaren karta. (*Septentrio*, 51. or.)

*Septentrio* irakurtzean, liburu «eruditu» hori, erran dugun bezala, eta «collage» literario bat dirudiena, parte batez gai ez-literarioz osatua dena, irakurleak ikasten ditu, bai, euskal itsas munduari lotuak diren gauzak, Ihoan Mandabillaren bidaia-kondairari esker, beste testu artxibatu eta argitaragabeen erreferentzietan esker (adibidez Martin de Hoyarsabal-ena, 101. or. aipatua, eta horretaz itzulpena egin zuen Piarres Dorre-rena, 135. or.), «orain goibelak» iruditzen zaizkigun lehengo mapen erreproduktzioei esker («désormais opaques», *Septentrio*, 2006), edo eleberri laburrari esker, lehen pertsona erabiltzen duena, eta Ipar-iparreko tokietako herri-tarren eta euskaldun batzuen topaketa kontatzen duena, euskaldunak ahalkearekin ohartzeko direla Historian zehar eskualde horretako esplotazioan parte hartu zutela:

Bidaiantak isilik zeuden berak ere larru zurikoak baitziren, beharbada, «deskubritzaile» eta kolonizatzaileen umeen umeen ondokoak, beharbada urtero hara zihoazen itsasturien ondoko urrunak. Eta bazekiten, bidaiant euskaldunek, marinel haiek ez zirela euskal kantu zahar batzuetan aipatzen diren «indiano salbaiekin» eta «iskimau gizabestekin» beti ontsa portatu. (*Septentrio*, 122. or.)

Baina ez dira bi *Septentrio*-ak mintzaira eta kultura baten defentsa soil horretarat apaltzen ahal<sup>3</sup>, arrazoi bakar hauengatik bederen: bigarren liburua frantsesez da, eta gaztelaniazko bertsioa berrikitan argitaratua izan da, oraino desberdina. A. Arkotxak defendatu nahi ote ditu ere frantsesa eta gaztelania? eta ingelesa ere bai, lehen bilduma Kenneth White-ren olerki-zatiekin hasten baita? eta zergatik ez latina, tituluak eta azpтитuluak ikusiz? Ez, «zergatik idazteari halere jarraiki» galde-  
raren bigarren erantzuna hauxe da: A. Arkotxak ez du amore eman nahi metafisi-  
karekin, Literaturarekin. Dadoak botatzen segitu nahi du, bere gizadia osoki biziz  
hitz «hesian», azkenean Septentrioa lortzeko esperantzaren eraginez, beharbada  
zentzugabekeria dena, baina beharbada ez, amets literario batean erortzeko  
arriskuarekin ere; hori da Marko Polo-k espresatzen duen Idealarekiko geroko  
bateratze-desioa:

Hemendik laster, agian, aterako naiz berriz Kasanen erreinura joateko. Hil aitzin  
gelditzen zaidan ene azken gutizia Kogatra erreginaren ikustea baita. Azken aldikotz.  
(39. or.)

Gizona ez baitaiteke esperantza metafisiko horretatik askatzen ahal, lehen bildumaren «hutsari» bigarren liburu baten beteak jarraitu dio (anarteko betea, lilu-  
ragarria, hura ere «hutsean» bururutzen delako); lehen lanaren berridazketa den  
bigarren horrek «errepikapen eskubidea» («droit au ressassement») du aldarrika-  
tzen, «literaturaren» eta joko literarioaren «eskubide» unibertsal eta translinguisti-  
koaren baldintza gisa («Le ressassement ou le droit à la littérature», J. Derrida, *op. cit.*, 323. or.), existitzen ez den Portu hutsaz, Portu hutserantz eta Portu hutsa den arren («Outportua» ou «Ophorportu») idazteko eskubidea, edozein giza idazketa-  
rentzat (gizadi-ondare geopoetikotzat hartu behar direnak, eta ez soilik dokumentu  
erregionalistatzat). Hain zuzen, A. Arkotxak ez du gelditu nahi giza menturaren  
historikotasuna gaintitzea, idealki historikotasunik gabea litekeen memoria bat  
eraikitzeko, Septentriorat, jakitate-osotasunerat daramaten lekuen historikotasu-  
nik gabeko memoria bat eraikitzeko. Hori da adibidez 46.-47. orrialdeetako mapar-  
ren erran-nahia: ekialdetik mendebalera irakurri behar da, toponimoen iraganean  
atzeratze bat egingo bagenu bezala: «Lamaline» portu horren gaurko izena da;  
urrunago, portu berarentzat, bi toponimo ezarriak dira bata bestearen ondoan:  
«Carruge» eta «La Conche»; oraindik urrunago, huts toponimikoak errealki  
emanak izan zitezkeen izenek osatzen dituzte, erran nahi baita benetan errealtzat  
irakurri behar direla, Mentura ahal bezain menperatu batean hautatuak izan

---

3. Eta kultura horretan, A. Arkotxa ez daiteke «Iparraldeko literaturan» kokatzen ahal: alde batetik, erran baikenezake badirela «Iparraldean bizi diren idazleak», eta ez egiazko mugimendu literario eraturik Iparraldean; eta beste alde batetik, Ur Apalategik arrunt finki erakutsi duen bezala, A. Arkotxaren ipartasun absolutuaren bilaketa «Iparraldeko literaturaren» sublimazio bat baita: «Haatik Arkotxak aldarrikatzen duena ez bide da iparraldetasuna, baizik eta «ipartasuna» izendatuko duguna. Ipartasuna posizio berri bat da euskal literatur sistemaren xake-taulan, Iparraldearen egoera marginala sublima-  
tzeko ahalegin geopoetiko ausarta. Hemen Arkotxak bilatzen eta aurkitzen duen posizioaren berrita-  
suna Ternuari etengabe egiten zaion erreferentziak baieztatuko luke, Ternuak iparra sinbolizatzeaz  
gain «lur berria» esan nahi baitu, literalki. Kenneth White poetak Septentrio-ren atzesolasean doenez,  
«lur berrietara buruz» doa Arkotxa, «Terra incognita» batera buruz». («Iparraldeko azken aldiko literatura  
euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa). Zenbait hipotesi», Ur Apalategi, *Lapurdum*, X,  
Baiona, 2006, 13. or.).



baitira: «Portuchoa», besteak beste. Literatura, *hypermnési* gisa, behin eta berriz, halere, idealki jakitate-tresna miresgarri bat bezala begiratua da<sup>4</sup>.

Gure kondizioak «Septentrio» baten bilaketarat behartzen gaitu, eta gure eskubidea da hitzekin eta hondoratzearen arrisku iraunkorarekin jokatzeko haren atzetik etengabe ibiltzeko, eta horrela, zentzu xerka horren bidez, gure existentziari norabide bat ematea. Ezen Literatura itsasargi hura bezalakoa da: argia geldi-geldi itzulika ari da baina aski argitzen du (beharbada liluraz, baina beharbada ez) harkaitzen aurka puskatzeko arriskua saihesteko.

Itsasargia, ager, desager. [...]

Eta argia itzulika, itzulika. (*Septentrio*, 131. or.)

Gizakia, *loquens* baino hobeki *infans*, etengabe ari da idazten eta mintzatzen ikasten, Hitzarekin bere burua argitzen, Testu salbagarriaren osotasunerat nehoiz heldu gabe: errealitatea da beti mintzatzen hasten dela, totalki, errepikapenak eginez abantzu (bainan sekula ez arras) hitzez hitz, beti abiatuz eta nehoiz iritsiz portu desiraturat, ez baitezake haren kokapen geografikoa ezagutu:

Hau abiatzea zen eta ez heltzea. (*Septentrio*, 143. or.)

A. Arkotxaren lanen eraikuntza palimpsestikoak erran nahi du idatzia den guzia idatzia izan ez zitekeela, edo manera desberdin batez, beste narratzaile batzuek, beste itxura batekin: testuak gehituak izan zitezkeen *Le Devisement du Monde*-n, liburu horren zati batzuk idatziak izan ez zitezkeen. Hona, beraz, garrantzitsua: gure abere pentsalariaren izaeraren kontingentziaz ohartzea, eta ber denboran hori lantzea, izar-multzo hipotetiko baten keta ontziratzeko etengabeko desioaz gozatzeko. Prozesu oedipianoa da zinez, gure kondizioaren egia hobeki ikusteko itsutze bat: itsu gisa begiratzen ikasi behar da, herioaren ilunean («Batzuetan burura jiten zait beharbada ez zela hala eta ez zuela gau hartan beltza baizik ikusten [haur

---

4. Hain zuzen, hipermnesia hori subjektu liriko modernoaren berezitasuna da, Jean-Michel Maulpoix-en arabera: «Cerné de toutes parts mais solitaire, possessif mais dépossédé, le sujet lyrique est un palimpseste de visages aimés. Sa mémoire est exorbitante; il s'exclame: "J'ai plus de souvenirs que si j'avais mille ans", car ce mémorial est celui de toutes les "autres vies" qui lui semblaient dues à chaque être. Hypermnésique, il se souvient de ce qui n'a en vérité jamais eu lieu. Il a tout vu, tout vécu, tout connu, y compris et surtout ce qui n'eut pas lieu d'être. Il existe à la façon d'une jonchée de signes, "encombré de bilans, / De vers, de billets doux, de procès, de romances, / Avec de lourds cheveux roulés dans des quittances" [Charles Baudelaire, *Les Fleurs du mal*]. La seule chose dont il se souviennent mal, parmi tout ce désordre, c'est lui-même». / «Bazter guzietarik inguratua bainan bakartia, nagusitu nahia bainan nagusi peko, suieta lirikoa aurpegi maitatuen palimpsestoa da. Haren memoria erraldoia da; oihukatzen du: "Mila urte banitu baino orroitzapen gehiago ditut", memoria hori "bertze biz" guziena baita, izaera baktaxari haren ustez zor litzaiokena. Hipermnestikoa, orroitzen da egiazki nehoiz gertatu ez denaz. Dena ikusia du, dena bizitua, dena ezagutua, bereziki eta baitezpada izan behar ez zitekeena. Aieru sorta baten gisa existitzen da, "txostenez trabatua, / Bertsoz, hitz goxoz, epaiketaz, xaramelaz, / Ile astunekin, ordainagiriaren borobilduak" [Charles Baudelaire, *Les Fleurs du Mal*]. Gaizki gogoratzen zaion gauza bakarra da, desordena horren guztiaren artean, bere burua». («La quatrième personne du singulier», Jean-Michel Maulpoix, in *Figures du Sujet Lyrique, sous la direction de Dominique Rabaté*, PUF, «Perspectives littéraires», Paris, 1996, 160. or.). Interesgarria liteke hurbilagotik aztertzea «suieto lirikoaren» araudia A. Arkotxaren obretan, horrenbeste ezaugarri modernoak direlarik (Jean-Michel Maulpoix-i jarraitzen badiogu) erbestertate absolutua eta «ni» pertsonaren zehaztugabetasuna («ni» biografikoa, femeninoa edo beste ez dena, alegia).

itsuak]», 145. or.) isilik mintzatzen ikasi behar da. Konturatze hori aintzina arau, ez daiteke gehiago osotasun bat itxuratzen duen testu segiturik aipa: pasarte poetikoentzat da bakarrik leku, giza mugak eta gure oinarrizko jakitate eskasa umilki itxuratzen baitituzte. A. Arkotxak, Mallarmé-k bezala, hausturarik gabeko berridazketa-dinamika horri jarraitzerat eta pertsonalki bizitzerat gonbidatzen gaitu, argiki begiratu Literatura dela palimpsesto-jokabide bat, lehen *Septentrio*-ren berridazteak sinbolizatzen duena, nahiz eta, Gizadia hondoratuko denean, ez daitekeen horretatik deus geldi, errealtatea bere uztean. Jokoan dena hemen hauxe da: norberaren gizatasuna duinki bizitzea eta ihes egiten duen denboraren lekuko literarioa ondoko belaunaldiei pasaraztea, «quand bien même la mémoire nous aura désertés» / «Memoriai huts eginik ere» (*Septentrio*, 2006). Irakurleari dagokio A. Arkotxaren etsenpluari jarraitzea, pasarte errepikagarrien kateatzean parte hartzea, «Septentrio» liburuan eta gorputzez bilatzea, giza artxiboak beraren ekoizpenekin gehituz (horretarat gonbidatzen gaitu prosa poetikoan testu zaharren kokatzeak, «Outportua» sailean, adibidez 147., 151. eta 155. or., edo mapa asatuak lehenagoen gainean sistematikoki ezartzeak, bigarren *Septentrio*-n), nahiz eta izar-multzoak azken finean ez lukeen «literatura zehaztugabe» bat islatzerat helarazten, beti giza eskutik jalgi aitzinagoko idazketarat, hitz-hatz eta hatz mentalerat, jatorria betiko giza kanpo, ezin errana utziz. Azken hondamena arriskatzeak balio du, gure miseriaren ospea (Pascal-en hiztegia erabil baneza) «beharbada» batekin jokatzeko ahalean baitatza, hain zuzen, halere («et, néanmoins», lioke Philippe Jaccottet-k):

Nork daki? Behar bada kaia ahantzi baten hatzak... (*Septentrio*, 118. or.)

## Bibliografia

### Obra literarioak

- Arkotxa, A. (2001): *Septentrio*, Alberdania, Irun.  
 ———, (2006): *Septentrio*, L'Atelier du Héron, «Pérégrins», Bruxelles.  
 Jaccottet, P. (2001): *Et, néanmoins*, Gallimard, «NRF», Paris.  
 Mallarmé, St. (1945): *Oeuvres complètes*, Gallimard, «Bibliothèque de la Pléiade», Paris.  
 ———, (1959): *Correspondance*, Gallimard, «Folio», Paris.  
 ———, (1992): *Poésies*, NRF, «Poésie/Gallimard», Paris.  
 ———, (2003): *Igitur, Divagations, Un coup de dés*, «Poésie/Gallimard», Paris.  
 Polo, M. (1998): *Le Devisement du Monde*, Le Livre de Poche, «Lettres Gothiques», Paris.

### Kritikak eta gogoetak

- Apalategi, U. (2006): «Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa). Zenbait hipotesi», *Lapurdum*, X, Baiona.  
 Benoit, E. (1998a): *Mallarmé et le Mystère du «Livre»*, Honoré Champion, «Romantisme et modernités».  
 ———, (1998b): *Les Poésies de Mallarmé*, Ellipses, «Du Mot à l'oeuvre», Paris.  
 Derrida, J. (1967): *De la Grammatologie*, Les Editions de Minuit, «Critique», Paris.  
 ———, (2001): «Le ressassement ou le droit à la littérature», *Écritures du ressassement, Modernités*, 15, Presses Universitaires de Bordeaux.



